

ZERRENDA MADARIKATUA

Leizaran, 2025eko azaroa Marko Urrutia eta Abderrahmane Khoudi.

Ezekiel

Jasone Osoro

Elkar, 2009



Ezekiel Jasone Osorok idatzi duen gazteentzako nobela bat da. Liburu honek ez du barruan ilustraziorik. Mutil lagun talde bati buruzkoa da. Denei motorrak eta neskak gustatzen zaizkie. Denen artean apostu bat egin zuten, ea lehenengo nork emango zion neska bati musua. Horrela abiatzen da kontakizuna.

Ezekiel, bere lagunentzat "Ros", hamalau urteko mutil bat da. Bere amarekin eta bere arrebarekin bizi da, eta ez du bere aita ezagutu. Nerabe guztiek bezala, bere bizitza bi zatitan banatuta du: alde batetik, etxea eta bestetik, bere lagun taldea, Etxe, Leon eta Ola. Zerrenda bat zeukaten, neskak sailkatzen zituena.

Ezekiel liburua narratiba generokoa da. Harremanetako gorabehera asko kontatzen ditu. Maitasun harreman asko azaltzen dira, batzuk isilean pasatzen direnak eta beste batzuk agerikoak, denen aurrean, gertatzen direnak eta hainbat saldukeria ere azaltzen dira, intriga handia sortzen du.

Nobela hau asko gustatu zaigu oso interesgarria iruditu zaigulako gazteentzat gazteei beren adiskidetasun eta harremanei buruz hausnartzen laguntzen dielako, gazte euren burua kontakizun honetan erreflejatuta ikusten dutelako.

Beraien arteko harremanak nahiko matxistak eta homofobo samarrak ziren eta neskak jostailu edo denborapasa moduan ikusten dituzte, ez dakite nola erlazionatu elkarren artean modu osasuntsu batean.

Horregatik guk gomendatzen dugu irakurketa hau.